

2/2016 akta

OSATEK, SA SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN AKTA, 2016KO UZTAILAREN 11KOA.

Presidentearen premiazko deialdiaren ondorioz, Administrazio Kontseilua osatu da, Gernika Aretoan, Lakua II Eraikineko 4. solairuan dagoen horretan, Vitoria-Gasteizko Donostia-San Sebastian kaleko 1. zenbakian, 09:30ean, 2016ko uztailaren 11n, jarraian jasotako bertaratuekin eta gai-zerrendarekin.

BERTARATUTAKOAK:

PRESIDENTEA

Pedro Hernando Arranz jn.

KIDEAK

Jon Etxeberria Cruz jn.

Antonio Arraiza Armendariz jn.

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jn.

Lide Amilibia Bergaretxe and.

Guillermo Viñegra García jaunak bertaratzea ezinezkoa izan zaiola adierazten dio Osatekeko Administrazio Kontseiluari idatzi baten bidez. Horretan, bere ordezkaritza eta botoa Jon Etxeberria Cruzen eskuetan uzten du.

Fernando Aguirre De Miguel jaunak eta Susana López Altuna andreak ere bertaratzea ezinezkoa izan zaiela adierazten dute.

Bileran izan da, baita ere, hitza duela baina botorik gabe, Josu Xabier Llano Hernaiz, Osatek, SAko zuzendari gerentea.

Guillermo Viñegra García presidentea ez dagoenez, Pedro Hernando Arranz jauna presidente lanak egin ditu, adin nagusieneko kidea baita, Sozietatearen Estatutuen 13-3 artikularekin bat etorritik.

Susana López Altuna and. ez dagoenez., Lide Amilibia Bergaretxe and. ibili da idazkari lanetan, kiderik gazteena delako, Sozietatearen Estatutuen 13-4 artikularekin bat etorritik.

GAI-ZERRENDA:

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea, bidezkoa bada.
2. Osatekeko plantilla handitzeko proposamena onartzea.
3. Galderak eta eskaerak.

Behin dauden guztiak bilduta bilerari hasiera eman zaio, Kontseiluaren beste kideen ez-bertaratzeak eta ordezkaritzak zein diren adieraziz.

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea, bidezkoa bada.

Aurreko bileraren akta irakurri eta horren edukiaren inguruko galderak egin eta azalpenak eman dira.

Osorik irakurri ondoren, aho batez onartu da.

2. Osatekeko plantilla handitzeko proposamena onartzea.

Gerenteak hitza hartu eta Kontseiluko kideei azaldu die Osatekeko egiturazko plantilla Sozietateak benetan egindako jarduerara egokitzeko proposamenaren edukia zein den.

Entregatutako txostenak azken urteotan azpiegitura teknologikoa handitu dela deskribatzen du: 1993an inauguratutako 2 EM makinetatik, 2016an EAE guztitik banatutako 13 EM makinetara.

Gainera, EMaren eskaera klinikoaren hazkunde iraunkorrari buruzko datuak eta datozen urteetarako arlo honetan dauden hazkunde-itxaropenak azaldu ditu.

Gerenteak, gainera, gehitu du, zerbitzuaren azpiegituren hedapen eta hazkundeko epealdi honetan, Osatekek aurre egin diela behar berriei bere egiturazko plantilla finkoa aldatu gabe, geroz eta handiagoak diren lan-kargei aldi baterako langileekin erantzunez.

Kontseiluko kideen galderei erantzuteko, plantillaren egungo osaera xehatu du, bere kategoria profesional ezberdinetan: Erradiologoa, Teknikaria, Laguntzailea eta Idazkaria. Horrekin lotuta ere, 2016. urterako aurreikusten diren lan-kargak xehatu ditu, eta argitu du eskatzen den egiturazko plantilla beharrezkoa dela astelehenetik ostiralera bitarteko txandetan garatutako lanari aurre egiteko eta horretatik kanpo gelditzen direla asteburuak; horietan aldi baterako langileekin beteko bailitzateke zerbitzua.

Azkenik, esaten du eskatutako plantilla-hazkundeak ez duela eraginik soldata-masan aurrekontuen mailan, azken urteotan haien lana aldi baterako kontratuekin edo mugagabeekin egin duten profesionalak egonkortzean datzalako, nagusiki.

Behin azalpena amaituta, Kontseiluko kideek hainbat gai eztabaidatu dituzte eta Kontseilariak gerenteari helarazi diote eskatutako plazak betetzeko langile egokiak hautatzeko prozedura ahalik eta epe laburrenean ezarri behar dela.

Azkenik, aho batez onartu da plantilla egokitzea proposamenean jasotako baldintzekin, hori guztia Sozietatearen Estatutuetako 14-1-b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz; izan ere, bertan, Administrazio Kontseiluaren eskumenak zehazten dira: "...zentroko plantilla eta hori hautatzeko eta banatzeko irizpideak ezartzea".

3. Bilera honen akta irakurtzea eta onartzea

Irakurri ondoren, bilera honen akta aho batez onartu da.

4. Galderak eta eskaerak


Gai gehiagorik egon ez denez gero, 10:45 direnean, bilera amaitutzat eman da hurrengo deialdira arte.

IDAZKARIA



Iz.: Lide Amilibia Bergaretxe and.

PRESIDENTEA



Iz.: Pedro Hernando Arranz jr.